



2021EKO APIRILAREN 13AN UDALBATZAK IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elgoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Uribarri Urresti, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Fco. Javier Mar Medina, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA: Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko apirilaren 13an, arratsaldeko 18:30ak direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira Udaletxeko Udalbatzar Aretan, bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egitearren.

1.- 2020IKIB0007 espedientea. Aretxabaletako Ibarra Kiroldagiko kirol jardueren eskaintza, sorosle zerbitzua, fitness gelako aholkularitza zerbitzua, sarbide kontrola, kiroldegiaren mantentze-lanak eta zerbitzu guztien koordinazioaren esleipena.

Alkateak jakinarazi du kiroldegiaren kontratua esleitzea presazkoa dela eta Koldo Zubillagak jakinarazi du hiru eskaintza jaso direla: Disport Eki, S.L.; Athlon Koop Elkarte eta Granadako Ebone enpresak eta Eibarko Jaso Kirol Zerbitzuak enpresak osatzen duten aldi baterako batasuna. Eskaintza teknikoak baloratzekoan, Athlonen eskuratu du puntuazio handiena, 45,5 puntu, 36,5 Ebone-Jaso eta 26.5 Disport etxeak. Gero, eskaintza ekonomikoak aztertu dira eta hor ikusi da Athlonen eskaintza dela garestiena, baina batzuetan beste berak lortu du puntuazio handiena. Hortaz, proposamena da kontratua euren eskaintzea.


Ion Albizuk uste du inportantea izan dela hasierako prozesua eta ordu asko pasa zituztela gora eta behera planteamenduekin. Koldo eta Alex zoriondu egiten ditu eman den partehartze eta lankidetzagatik. Lizitazioan gauza interesgarri batzuk jasotzen dira, seguruenez hobeto egin zitezkeen, langileen soldaten hobekuntzak orduetan eta guardia kontuetan bereziki. Zerbitzuetan gauza batzuk egokitu egin dira eta ondo egin dira. Horiek bere alderdiaren babesa izan dutela adierazi du, pertsonen beharretara egokitzeko eta jarduerak eskaintzeko. Hemendik aurrera lana izango da langileen hobekuntzak ziurtatzea, horretarako ipini baita diru gehiago. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez zera erabaki da:

LEHENA: Aretxabaletako Ibarra Kiroldagiko kirol jardueren eskaintza, sorosle zerbitzua, fitness gelako aholkularitza zerbitzua, sarbide kontrola, kiroldegiaren mantentze-lanak eta zerbitzu guztien koordinazioa Athlon koop. Elkarteari esleitu urtebeterako berea izan delako prezio kalitatean eskaintzarik onena.

Athlon Koop. Elkarteak honako kopuruak eta ezaugarriak bete beharko ditu:

Eskaintza ekonomikoa: HARRERA + SOROSLETZA + MANTENUA + ROKODROMOA + KOORDINAZIOA: 323.186,00 € + BEZari dagokion 67.869,06 €.

Eskaintza ekonomikoa: KIROL JARDUERAK + FITNESS Gelako AHOLKULARITZA 22,03 €/orduko + BEZari dagokion 4,63€/orduko.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAB9LXM.1DFx



Aretxabaletako
Udala

Komunikazioari bideratutako lan orduak: 100 ordu.

Herritarrei zuzendutako kiroldegitik kanpo antolatutako ekintza orduak: 20 ordu.

BIGARRENA: Alkatea ahalmenu kontratua izenpetzeko Aretxabaletako udalaren izenean eta ordezkari bezala.


HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinarazi Athlon koop. Elkarteari, UTE Ebone-Jaso Aretxabaletari eta Disport Eki, SL.ri.

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Asier Mujika Altuna kirol teknikaria izendatu.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko zazpirak hogeita hamabost direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<p><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAB9LXM.1DFx</p>